

## GIPUZKOA

# Legorretako I. sagardo eguna izango da ekainaren 14an

Zortzi izango dira parte hartuko duten sagardotegiak: Aulia, Barkaiztegi, Bereziartua, Lizeaga, Petritegi, Rufino, Setien eta Zabala

ESNAL | LEGORRETA.

7 junio 2014  
00:06

Datorren larunbatean, hilak 14, ospatuko da Legorretako I. Sagardo Eguna. Aldapa Haundi, Bilkoin eta Jo Ta Kea elkarteek antolatuta, zortzi izango dira parte hartuko duten sagardotegiak: Aulia, Barkaiztegi, Bereziartua, Lizeaga, Petritegi, Rufino, Setien eta Zabala.

Edalontziak hiru euroko salneurria izango du eta pintxoek berriz, euro batekoa. Ekitaldia Korta eta Zapas enparantzan egingo da, arratsaldeko 6etatik aurrera.

### Herritarrak 53. kilometroan

Gure Esku Dago ekimenak Durango eta Iruñea giza kate baten bidez elkartuko ditu bihar, eta Legorretako herritarrak ere 123 kilometro horien artean izango dira. Zehazki, 53. kilometroan, Ormaiztegi sarrerako biribilgunearen eta Beasaingo Salbatore auzoaren artekoan. Dagoeneko 160 metro saldu dira herrian, horrek esan nahi du gutxienez beste horrenbeste izango direla giza katean parte hartuko duten legorretarrak. Antolatzaileek garraio publikoa erabiltzea gomendatu dute, Legorretaren kasuan tren zerbitzua. Tokira garaiz iristea aholkatzen dute, antolakuntza aldetik arazorik izan ez dadin. Zentzu horretan, Ormaiztegiara joateko 9:34ko trena hartzea proposatu dute.

#### DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018. Correo electrónico de contacto [contactanos@diariovasco.com](mailto:contactanos@diariovasco.com)

Copyright © Digital Vasca S.L., San Sebastián., 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.), y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

#### EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.